



TXANOGORRITXO BORROKARAKO PREST.

**Ipuinetako estereotipoak
gaindituz ipuin berrien bidez.**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Olaizola Barberena, Jone.

ZUZENDARIA: Alvarez Uria, Amaia.

2021

LABURPENA

Literatura urteetan zehar momentuko gizartearen balio eta ideiak transmititzeko erabili izan den erreminta bat da. Haur Literaturaren kasua bereziki eragin handikoa da hurrek nortasuna oraindik guztiz garatu gabe baitute, beraz, garrantzi handia dute da garai horretan entzungo dituen ipuinak eta ipuin hauek helaraziko dizkioten bizi edo mundu ereduak. Horren harira, gaur egun, pil-pilean dagoen feminismoaren alor txiki bat hartu eta hori ardatz gisa erabiliz, herri ipuinetako pertsonaia adierazgarrienaren, Txanogorritxoren, inguruan idatzi izan diren bertsio ezberdin batzuen analisisa egin dugu. Hautatutako alor hori, emakumeok etxera bakarrik itzultzerakoan sentitzen dugun beldurra da, hau da, gizonen begiradapean objektu sexual eta beraz harrapakin bihurtzen gaituen sistema patriarkalaren ondoriozko biolentziaren aukera. Feminismoa, autodefentsa, ahalduntzea eta ahizpatasuna dira lan honen oinarri nagusiak, aurreko egoera orekatu eta injustizia eta zapalketa horri aurre egin nahian.

Gako-hitzak: Haur Literatura, Feminismoa, Autodefentsa, Beldurra eta Txanogorritxo.

Aurkibidea

Sarrera	1
1 Marko teorikoa	3
1.1 Haur Literatura	3
1.2 Generoa eta sexua	5
1.3 Estereotipoak eta aurreiritziak	6
1.4 Feminismoa eta autodefentsa	8
1.5 Txanogorritxo	12
2 Metodoa	14
2.1 Aztertutako corpusa	14
2.2 Erabilitako tresnak	16
2.2.1 Bilaketa bibliografikoak	16
2.2.2 Ikerketa artistikoa: ipuin baten sorkuntza	16
2.3 Prozedura	17
2.4 Helburuak	18
3 Emaitzak	19
3.1 Txanogorritxo – Charles Perrault	23
3.2 Señorita salvese quien pueda – Philippe Corentin	25
4 Sortutako ipuina	27
5 Ondorioak	29
5.1 Ondorioak	29
5.2 Hausnarketa	29
5.3 Hobekuntza proposamena	30
Bibliografia	31
Erreferentzia bibliografikoak	31

YouTubeko bideoak	35
Eranskinak	36
1. eranskina: informazioa antolatzeko taula	36
2. eranskina: banan-banakako azterketaren adibide esanguratsuenak	37
3. eranskina: La niña de rojo – Aaron Frisch	40

Ilustrazioen aurkibidea

1. taula: <i>emakume-gizonen rolak</i>	8
2. taula: <i>Perrault-Corentin konparazioa</i>	25
3. taula: informazioa antolatzeko taula.....	36
4. taula: ipuinen analisisa.	37
1. ilustrazioa: La niña de rojo.	40
2. ilustrazioa: La niña de rojo.	41

Sarrera

- *Amona, nolako beso handiak dauzkazun!*
- *Heu hobeto besarkatzeko, laztana.*
- *Amona, nolako hanka handiak dauzkazun!*
- *Arinago ibiltzeko, laztana.*
- *Amona, nolako belarri handiak dauzkazun!*
- *Hobeto entzuteko, laztana.*
- *Amona, nolako hagin handiak dauzkazun!*
- *Heu jateko.*

(Perrault, 1993).

Zenbat aldiz irakurri edo entzun ote dugu istorio honen pasarte hau. Hasiera batean, belaunaldiz belaunaldi ahoz transmititutakoak izaten ziren istorio hauek, behin paperean plasmatu zituen norbaitek, modu honetan, hauen desagerpena edo eraldaketa zailduz. Zati soil hau irakurtzearekin berehala identifikatzen dugu zein kontakizunetik aterata dagoen. Horrelako narrazioak izan dira txikitatik entzun ditugunak eta gure irakasle etorkizunari begira eta hau aldatzeko asmoarekin, istorio hauek generoaren ikuspegitik ikertzea erabaki dugu. Azterketa honen bitartez, zenbait ipuin alternatiboen berri izateko aukera eduki dugu. Ipuin hauek istorio tradizionalak sustatzen dituzten “ideia atzerakoiak” alde batera utzi eta egungo gizartearen eskakizunetara moldatuz proposamen berriak egiten dituzte, adibidez, emakumearen ahalduntzea bultzatzen duten bertsiok.

Denbora aurrera joan ahala, ohiturak aldatu egiten doaz eta horrekin batera geu ere aldatzen goaz. Ohitura edo usadioaren alde garrantzitsuenetako bat literatura dugu eta horren barruan, lan honen adigai nagusienetako bat, Haur Literatura. Tradizioak bezala, Haur Literaturak ere garapen handia jasan izan du urteetan zehar eta beti izan da garaiko gizartearen balore eta ideiak transmititzeko erreminta baliagarria. Esan bezala, eta beharrezkoa den bezala, istorioak eta kontatzeko modua gizartearekin batera eboluzionatzen joan dira eta ikerketa xume honekin garapen horren ibilbidearen berri eman nahi izan dugu.

Hamaika autore esanguratsu izan ditugu Haur Literaturan, baina aipatutako garapen honetan badira hiru izen ezinbestean burura etortzen zaizkigunak eta lan honetan faltatu ezin zirenak: Charles Perrault, Grimm anaiak (Jacob eta Wilhelm) eta Hans Christian Andersen.

Hauek dira gaur egungo haur literaturako pertsonaia esanguratsuenak harrian zizelkatu zituztenak.

Ipuin hauen analisiaren oinarri nagusia Feminismoa izan da, oso gai zabala da eta gaur egun berebiziko garrantzia hartzen ari dena. Feminismoaren zabaltasunean interesgarria iruditu zaigu, orokortasun batetik definizio sinple bat aurkeztea; beraz, Nuria Varela (2005: 9) hitzetan, “el feminismo es una teoría política y un movimiento social que busca la igualdad de derechos entre hombres y mujeres”.

Lan hau burutu ahal izateko, lehenik eta behin, helburu batzuk finkatu ditugu eta prozedura bat jarraituz, ikerketa artistikoa ardatz duena, ipuin sorta bat analizatu dugu. Honetarako ezinbestekoa izan da bilaketa bibliografiko sakon bat egitea honela marko teorikoa osatuz. Irakurketa honetan ohartu gara jada oso aztertua dagoen gai bat dela eta berrikuntza gisa, emaitzak islatzen dituen ipuin berri baten proposamena egin dugu.

Lan honen protagonista *Txanogorritxo* izan dugu eta ahalik eta zuku handiena ateratzen saiatu gara. Aipatu dugun moduan, historian zehar idatzi diren bertsiio ezberdinak irakurri eta aztertu ditugu eta hauek egin dituzten ekarpenak azaleratu. Honen bitartez, ikusgarritasuna eman nahi diogu ahizpatasunaren kontzeptuari, argi eta garbi gera dadin emakumeok ez gaudela bakarrik eta pausoz pauso aurrera egiten jarraituko dugula.

1 Marko teorikoa

Lan honetan zehar jorratuko den gaia, izenburuak dioen bezala, *Txanogorritxo borrokarako prest. Ipuinetako estereotipoak gaindituz ipuin berrien bidez* izango da. Azterketa hau egitearen arrazoietara iristeko, komenigarria iruditzen zaigu laburki Haur Literaturako Genero Ikerketen ibilbidea ezagutzea, autore ezberdinak aipatuz eta lan ezberdinak ekarriz, agertzen joango diren kontzeptu klabeak definituz.

1.1 Haur Literatura

Haur eta gazte literatura ez da hurrek edo gazteek irakurtzen, ulertzen eta disfrutatzen duten literatura; beraiek ere irakur, uler eta goza dezaketena baizik (Etxaniz, 1997: 5).

Haur literaturaren inguruan hitz egiten hasi aurretik, garrantzitsua iruditzen zaigu haurraren definizioa aztertzea. Haurraren kontzeptuak historian zehar izan duen ibilbidea jarraituz gero, konturatuko gara XVIII. mendera arte, kontzeptu hau ez zela existitzen. Garai horretara arte, umea “persona heldua, eskala txikian” zela uste zen (Etxaniz, 1997: 27). Beraz, haurra existitzen ez bazen, argi dago haur literatura are gutxiago eta Juan Cerverak dioenez, “la literatura infantil no por intentar ser infantil tiene que dejar de ser literatura” (Cervera, 1989: 158).

Horregatik, esan dezakegu, haur eta gazte literaturaren kontzeptua oso kontzeptu berria dela, duela mende eta erdi sortutakoa, hain zuzen ere. Euskal literaturaren kasuan, 1960ko hamarkadara arte, euskal haur literaturaren eremuan corpus falta handia zegoen eta zegoenaren helburua ez zen inolaz ere literarioa, erlijiosoa, irakurtzen ikastekoa, edo euskararen aldekoa, baizik. Hala ere, 60ko hamarkadan haur literatura produktuek gora egin arren, hauen eragina oso txikia izan zen (Etxaniz eta Lopez, 2001). Iñaki Zubeldiak esandako honek ongi adierazten du aurretik aipatutakoa:

Orain arte gure herriak egin duen ibilbidea askotan ez da kontuan hartzen literatur produkzioa aztertzerakoan. Guk ez daukagu literatur tradizio luze eta sakonik. Guk ez daukagu literaturaren "Urrezko Arorik" Espainiak, Frantziak edo

Ingalaterrak eduki duten bezala. Gure hizkuntza sukaldean eta elizan garatu da, garatu den apurra, duela oso gutxirarte (Zubeldia, 2003: 55-56).

Haur literaturaren jakingaia hain berria izanik, definizio zehatz bat sortzea oso zaila da eta horregatik, hamaika aurki ditzakegu.

Alde batetik, Iratxe Antónek, *Literatura infantil y juvenil: cuentos de hoy, estereotipos de siempre* (2016) izeneko gradu amaierako lanean dioen bezala, haur eta gazte literatura sozializazio eragileetako bat da, non kultura arketipoak, jarrerak eta estereotipoak erreproduzitzen diren.

Cerverak literatura hau, “haurra edo gaztea hartzaile (ez derrigorrez helburu) duten eta hitza artistikoki darabilten adierazpenetara” mugatzen du (in Etxaniz, 1997: 5); bestetik, Calvinok dioen moduan, literatura gizartearen auto-kontzientzia instrumentua eta baloreen transmisioa gauzatzeko erreminta dela esaten dutenak ere badaude (in Etxaniz, 2011).

Gainera, garapen pertsonalerako eta identitatea sortzerako orduan eragin handia duen arlo bat da literatura; baina garaiko testuinguru ideologiko, historiko, kultural eta politikoaren isla ere bada eta baita adoktrinatzailerak ere (Tomasi, 2014).

Horretaz gain, azpimarratzekoa da haurrengan duen eragina, adin goiztiarrei ere zuzendua baitago (Romero, 2011).

Xabier Etxanizek *Haur eta gazte literatura kontzeptuaren definizioaren bila* (1997) liburuan, Euskaldunon Egunkariak 1993.urteko abenduaren 3an argitaratutako alearen gehigarriko zenbait autoreren definizioak zerrendatu zituen. Hauek batez ere, haur eta gazteen literaturaren eta helduen literaturaren arteko ezberdintasunaren inguruan hitz egiten dute eta interesgarria iruditu zaigu hauetako batzuk aipatzea. Definizioetako bat Joxemari Iturraldek eman zuen: “Kontua da literatura ona bada, kalitatezkoa, ez duela adinik” (Etxaniz, 1997).

Bestalde, Juan Kruz Igerabidek ere eman zuen bere definizioa:

Nik uste dut berdinak direla sinboloak eta mundua sentitzeko sakontasuna. Sinboloak formulatzeko eran, hor dago aldea. Helduentzat modu arrazionalizatuagoan formulatzen ditugu eta haurrentzat, berriz, izpirituaren askatasun gehiagorekin. Baina sinboloa berbera da (Etxaniz, 1997: 3).

Esan bezala eta ekarritako aipuetan ikusten den moduan, definizio aniztasuna handia da; hala ere, adostasun eza nabaria izan arren, denak dira egiak eta denak irakurri eta aztertu ondoren, komunean dituzten puntu batzuk existitzen direla ikusi dugu. Denek hitz egiten dute literaturtasunaren defentsaren eta idazlanaren kalitatearen inguruan (Etxaniz, 1997).

Azken finean, literatura sozializazio eragile bat da, baita egungo testuinguru ideologiko, historiko, kultural eta politikoaren isla eta haur eta gazteen literaturan zentratuz, badu azpimarragarria den eragina. Bat egiten dugu haiek esandakoekin, baina gehitu nahiko genuke honako hau, orain arte erreproduzitu diren estereotipo sexistak edota betidanik ohikoa izan den genero zapalketa erreproduzitzeko tresna izan daiteke, edonola ere horiekin bukatzeko tresna ere izan daiteke.

1.2 Generoa eta sexua

Nabarmena da generoaren eta sexuaren arteko desberdintasuna bereizteko dugun zailtasuna eta horregatik, ezinbestekoa iruditu zaigu lan hau ulertu ahal izateko, hauen definizioak eta diferentziak zehaztea.

Sexuaren eta generoaren bereizketa lehenengo aldiz Gayle Rubinek (in Córdoba, 2005) egin zuen. Bere ustetan, generoak sexu batekiko identifikazioa dakar, gizon ala emakume izan, eta horrekin batera, aurkako sexuarekiko desioa, hau da, nahitaezko heterosexualitatea (Suzzi, 2016).

Aurrerago, sexua baldintza biologiko natural moduan definitu zen, eta generoa eraikuntza soziokultural bat bezala: “Se nace varón o mujer (sexo) pero “se aprende” a ser varón o mujer (género)” (Caricote, 2006: 469).

Gaur egun, *Queer teoriaren* (2005) arabera, sexu eta generoaren ideiek natura eta kulturaren arteko dikotomian dute oinarria, hau da, sexua lehenengoaren parte den elementu gisa identifikatzen da, baina kultura-esanahiaren bidez baino ez du gizarte-garrantzia lortzen, eta horri generoa deitzen zaio. Horren aurrean Queer teoriak kategoriak eta dikotomiak gainditzeko proposamena egiten du.

Esan bezala, generoa sexuen balio kulturez baliatzen den sistema hertsatzaile baten ondorioa da. Hala ere, oraindik ez gara gai libreki hautatzeko, genero binarismoa eta

heterosexualitatea derrigorrezkotzat jotzen baititu kulturak, indarkeria eta zigorra jasateko mehatxupearan baikaude arau sozial hauei iskin egiten badiegu (Fonseca eta Quintero, 2009).

Generoak, automatikoki, sexismoarekin lotura estua du. Sexismoa emakume eta gizonen arteko desberdintasunak azpimarratzean datza, emakumeenganako diskriminazio edo gutxiespena oinarritzat hartuz (Antón, 2016), emakume edo gizona izateagatik gaitasun eta trebetasun ezberdinak ditugula pentsatzea da (Varela, 2005) eta gizonezkoenak balio positiboa eta boterea dituzten bitartean, emakumezkoenak ez.

Generoari lotuta doazen rol edo estereotipoen ondorioz, mendebaldeko kulturaren literaturaren historian zehar, emakumearen inguruko bi kontzeptu sortu dira: “emakume deabrua” eta “emakume aingerua”. Alde batetik, emakume deabrua dugu, normalean amaordea, sorgina edo prostituta izaten dira eta sozialki ez dago ondo ikusita, izan behar ez duguna irudikatzen du, bere burua defendatzeko gai da, ordura arteko ordena iraultzen du, autoritatetik ihes egiten du, askatasuna irudikatzen duena da, etab. Bestetik, emakume aingerua dago, denok izan beharko genukeena, gure jendaratean jarraitu beharreko emakume ereduak: pasiboa, bihozbera, sakrifikatua, asexuatua, pazientzia handikoa eta funtzio gisa etxeko lanak burutu eta haurrak eduki eta zaintzen dituena, hau da, etxekotua dagoena (Méndez, 2001).

Historian zehar, emakumea, emakume izate hutsagatik, gizonen zerbitzura dagoen edertasun irudikapen bat izan da, gizonarentzako objektu bihurtutako subjektu ikusezin bat. Diskurtso maskulinoak esan izan dio zer eta zein den (Lasarte, 2012).

1.3 Estereotipoak eta aurreiritziak

Esan bezala, generoa eta sexua, estereotipo eta aurreiritziekin lotuta doaz beti, batak bestea eragiten baitu. Hainbat definizio ditu termino hauetako bakoitzak.

Aurreiritziekin hasiz, RAEren (2016) eta Euskaltzaindiaren (2020) hiztegiek diotenez, aurreiritzi hitza, gaztelaniazko *prejuicio*, latinezko *praeiudicium* hitzetik dator, aurre-epaiketa edo alde aurreko erabakia esan nahi duena; eta Euskaltzaindiaren (2020) arabera, “Zerbaiti buruzko iritzi edo ustea, hura ezagutu edo aztertu aurretik sortua” da. Ikus dezakegunez, aurreiritziak ezagutu aurretik sortzen ditugun ideiak dira, normalean, iritzi negatiboak izaten direnak eta modu indibidualean sortzen direnak (Anton, 2016). Gordon Allportek *The Nature*

of Prejudice testuan esaten zuen bezala, talde baten parte den pertsona batenganako jarrera mesfidatia edo aurkakoa da; talde horren parte izateagatik, egokitzen zaizkion ezaugarri negatiboak jasotzen dituen (Anton, 2016).

Jarraitzeko, estereotipoak definituko ditugu. Kasu honetan, RAEk (2016) ematen duen definizioaren arabera, aldaezina izaten diren eta normalean taldean sortzen diren irudi edo ideiak dira eta Euskaltzaindiaren (2020) arabera, “Ideia, irudi edo eredu estereotipatua” da. Leyens, Yzerbytte eta Schadronek (in Bourhis eta Leyens, 1996) azaltzen duten bezala, estereotipoak, sexu, etnia, adin edo klasearen arabeko maila sozial ezberdinei aplikatutako ideia, jarrera, aurre-ezarritako sinesmenak dira.

Definizio ugari ditu kontzeptuetako bakoitzak baina funtsean denek azaltzen dute berdina: aurreiritziak, ezagutu aurretik, modu indibidualean sortzen diren ideia edo iritziak dira; eta estereotipoak, talde batek beste talde bati, adin, sexu, etnia edo klase sozialaren arabera, esleitzen dizkion ezaugarriak dira.

Aurretik aipatu bezala lau estereotipo mota existitzen dira (Antón, 2016):

1. Denbora-estereotipoak: estereotipo mota hauen oinarria adina da.
2. Estereotipo etnikoak: etnia edo arrazaren arabekoak.
3. Estereotipo-sozialak: maila sozioekonomikoa eta parte den sistema kulturala ardatz dutenak.
4. Genero-estereotipoak: pertsonen sexuagatik etiketatzen dituztenak.

Bai estereotipoak eta baita aurreiritziak ere, betidanik existitu izan diren kontzeptuak dira eta oso arriskutsuak dira modu inkontziente eta “naturalean” transmititzen direlako, sortzeko oso errazak dira, baina apurtzeko ia ezinezkoak (Antón, 2016).

Idea horiek guztiak, UNAF-en (Unión de Asociaciones Familiares, 2014), adierazten den bezala, generoaren arabeko rol ezberdinen eraketa ekarri du eta gizartean onartua izan nahi izatekotan, emakume izateagatik, rol jakin bat bete behar duzu, eta berdin, gizona izateagatik.

1.taula: emakume-gizonen rola.

EMAKUMEEN ROLA	GIZONEZKOEN ROLA
Eremu pribatua	Eremu publikoa
Familiaren sostengu afektiboa (ama)	Familiaren sostengu ekonomikoa
Baloratu gabeko eta konpentsazio ekonomiko, kultural eta sozialik gabeko edo urriko lanak	Kompentsazio ekonomiko, kultural eta soziala duten lanak
Esanekoa, sakrifikatua	Liderra, autoritarioa

Iturria: egileak egindakoa.

1.4 Feminismoa eta autodefentsa

Para mí el único muro super potente en contra de que Alcasser siga sucediendo, es el feminismo. El feminismo es transversal, tiene que estar en las aulas, tiene que estar en la universidad, tiene que estar en nuestras relaciones, tiene que estar en nuestra casa, tiene que estar en la calle, y si no hay feminismo no hay posibilidad de cambio (Barjola, 2018).

Feminismoa oso termino zabala da eta definizio zehatz bat ematea oso konplikatua izango litzateke, beraz, adiera orokor bat ematen saiatuko gara. Nuria Varela *Feminismo para principiantes* (2005) liburuan azaltzen duen bezala, feminismoa duela 300 urte emakume talde batek sortu zuen mugimendu sozial bat da. Emakume horiek, soilik emakume izateagatik jasaten zuten zapalketaz ohartu ziren eta honen harira, sortu zuten mugimendu hau.

Feminismoak gizarte-harremanak aldatzearen alde egiten du, emakumearen askapena, (eta harekin baita gizonarena ere), ekarriko duten aldaketen alde, sexuen arteko hierarkiak eta desberdintasunak ezabatuz (Gamba, 2008).

Historiaren izaera aztertuz, betidanik bizi izan gara gizarte androzentriko batean, emakumeak izaki ikusezin bihurtuz; hala ere, badira batzuk haien ibilbide eta merezimenduengatik nabarmenduak izan direnak, adibidez, Kleopatra eta Arkoko Juana (Pinto, 2003).

Esan bezala, feminismoa duela 300 urte inguru sortu zen, hala ere, bazen lehenagotik emakumeon posizioaren inguruan hausnartzen zutenak; baina garai haietan emakumeok defendatzen gintuzten testu guztiak desagertu egin ziren, 1405. urtean Christine de Pizanek *La ciudad de las damas* argitaratu zuen arte (Varela, 2005).

Autore askok feminismoaren hasiera Guillermine de Bohemiaren proposamenarekin lotzen dute, emakumeen eliza bat sortu zuenarekin, XII. mendearen amaieran. Beste batzuek, XIX. mendearen erdialdean predikatzailen eta sorginen eskutik borroka kolektibo eta antolatu bat egin zen unearekin (Gamba, 2008).

Esan genezake, feminismoa XX. mendeko mugimendu garrantzitsuenetako bat izan dela. Mugimendu honen eskutik hainbat gauza ikasi eta egin ditzakegu, haien artean, gizarte justu eta harmoniko bat sortu (Facio eta Fries, 2005).

Feminismoa 3 fase ezberdinetatik igaro da:

1. olatua: XVIII. mendean hasi zen eta emakume talde ezberdinek elkarrekin borrokatu zuten lehenengo aldia izan zen. Mende honetan bi gertakari garrantzitsu izan ziren: Industria Iraultza eta Frantziako Iraultza. Frantziako Iraultzaren leloa “askatasuna, berdintasuna eta senidetasuna” izan zen, baina soilik gizonengan aplikatzen zen. Emakumeek ez zuten ulertzen zergatik ziren baztertuak eta ez zizkieten gizonen eskubide berberak eskaintzen eta hortik sortu zen feminismoa (Varela, 2005). Olatu honetan, Olympe de Gougesek *Declaración de los derechos de la Mujer y la Ciudadana* (1791) argitaratu zuen, non emakumeen eskubideak gizonen tiraniagatik Baldintzatuta daudela esaten duen (Gamba, 2008).
2. olatua: XIX. mendearen hasieran izan zen. Oraingoan, helburu zehatz askorengatik borrokatu ziren, bereziki botoa emateko eskubideagatik. Borroka honi sufragismoa deitu zitzaion eta parte hartu zuten emakumeei sufragistak.
3. olatua: bigarren olatuaren ondoren, emakumeek haien helburu nagusiak lortu zituzten: alde batetik, botoa emateko eskubidea; eta bestetik, goi mailako ikasketak izateko eskubidea. 1950. eta 1960. hamarkadetan Simone de Beauvoir oso filosofo garrantzitsua izan zen eta baita influentzia handikoa ere. Pentsalari honek 1949an *El segundo sexo* liburua idatzi eta argitaratu zuen, emakumearen eta bere egoeraren inguruan hitz egiten duen libururik osoena da. Beauvoirrek zioen moduan “no se nace mujer, se llega a serlo”, gizarteak azaltzen eta inposatzen baitigu zer den emakume izatea, beraz, ez da izaera natural edo propio bat (Varela, 2005).

Feminismoa beti egon izan da presente, eta beti izan da beharrezkoa, Nerea Barjolak (2018) egindako elkarrizketa batean esan zituen hitz hauek erakusten duten bezala:

Me parece que podríamos encontrar esos mismos elementos en otros tantos casos, cada generación va a tener su relato, podemos hablar de la generación de Marta del Castillo, podemos hablar de la

generación de Rocío Wanninkhof, podemos hablar ahora mismo de Diana Quer y podemos hablar ahora de la agresión en Iruña (2018).

Ikus dezakegunez, zoritxarrez, belaunaldi guztiek dugu matxismoaren biktima eredugarri bat eta beldurra eragiteko eta arauak betearazteko istorio famaturen bat, beraz, esan dezakegu, aurrerapausoak eman ditugula, baina baita esan dezakegu beste hamaika geratzen zaizkigula emateke.

Atal honen bigarren zatia ekinez, autodefentsaren kontzeptua definitzen saiatuko gara.

Claire Martinek (2013) autodefentsaren garapena auto-zentsura femeninoa deseraikitze modu bat bezala eta benetako askatasun eta genero-berdintasuna martxan jartzeko mekanismo gisa definitzen du. Zehatzago esanda, babes pertsonalerako praktika bat da, bereziki emakumeei zuzendua dagoena.

Autodefentsa estrategia teoriko-praktiko bat da, teoria feministan eta generoarenean oinarritzen dena. Bere helburua, emakumeok gure burua defenda dezagun gure gaitasun psikologiko, linguistiko eta esperientziazkoak garatzea da, eta baita gaitasun horiek indartzeko teknikak irakastea (Diaz, Mora, Riobueno eta Toscano, 2020).

Maitena Monroyren (d.g.) arabera, modu indibidual edo kolektiboan eraso sexista bati erantzuteko errekurtso teoriko-praktikoa da. Ezin dugu soilik teknika fisiko batzuen ikasketarekin identifikatu, baizik eta, teoria feministaren eta generoaren teoriak irakatsitako guztiaz hornituta dagoen teknika baten moduan ulertu behar dugu. Emakumeok jasaten ditugun eraso gehienak ez dira eraso fisikoak eta horregatik, autodefentsa erreminta fisiko soil bat baino harago doala ulertu behar dugu. Ezin dugu autodefentsa fisiko batean geratu, arlo hau ere guztiz beharrezkoa izanik ere, lortu beharrekoa emakumeen aurkako biolentzia guztiz desagerraraztea da eta errepikatuko ez dela argi geratzea.

Defentsa mota honek kategoria ezberdinak hartzen ditu, alde batetik kategoria mentala, bestetik, emozionala, bestetik, ahozkoa eta azkenik, fisikoa. Mentalari dagokionez, emakume batek bere buruarekiko eta inguruarekiko duen ideiarekin lotuta dago; baita egozten dizkion eskubideekin eta ideiekin ere; eta batez ere, egoera ezberdinei aurre egiteko dituen erreminta edo teknikekin. Alderdi emozionalari dagokionez argi izan behar da hurrengoa: “Para ser capaz de defenderse hay que desarrollar la voluntad de hacerlo” (Martin, 2013). Ahozko autodefentsaren helburua ezetz esaten jakitea da, asertibitateaz eta emozioekiko eta gorputz adierazpenarekiko koherentziaz baliatuz. Azkenik, fisikoak emakumeak bere gorputzaren

kontzientzia hartzean datza, hau da, bere indargune eta ahulguneak ezagutu eta hauek erabiliz erasotzaileari aurre egitea du xede (Diaz, Mora, Riobueno eta Toscano, 2020).

Autodefentsarekin amaitzeko, laburbiltzeko asmoz, esan dezakegu, *Beldur Barikek* 2020an argitaratutako artikulu batean esaten duen bezala, autodefentsa beldurrari aurre egiteko lanabes kolektibo bat dela.

Argi geratu den moduan, aurretik definitutako bi kontzeptu hauek zuzenki lotuta daude eta bata besteari eragiten dio.

Bestalde, feminismoaren eta autodefentsaren inguruan hitz eginez gero, burura datorkigun beste kontzeptuetako bat, emakumeen ahalduntzea da. “Ahalduntze” hitzaren esanahia aztertuz gero, esan dezakegu ingelerazko *empowerment* terminoaren itzulpen literala dela, hau da, boteregabetua den pertsona baten indartzea, batez ere, arlo sozial, ekonomiko eta politikoan. Christina Alffek egindako elkarrizketa batean (2021) esan zuen bezala, ahalduntze terminoa oso zabala da eta definitzeko zaila eta bere ustetan, Naila Kabeerrek emandako definizioa da gehien hurbiltzen dena:

"Bizitzan erabaki estrategikoak hartzeko gaitasuna ukatu zaienek gaitasun hori eskuratzeko prozesuan datza emakumeen ahalduntzea" (Ezezaguna, 2021).

Beste alde batetik, Emakunde izeneko organismoak “ahalduntze” hitzaren beste definizio bat eman zuen artikulu batean (d.g.):

“Pertsonak bere bizitzari eragiten dioten baliabide eta erabakiei buruzko autoritatea eta boterea areagotzea. Emakumeak, banaka eta talde gisa, euren egoeraren jabe egitearekin dago lotuta, horrela areagotu egingo dutelako erabakiak hartzeko prozesuetan duten parte-hartzea, bai eta boterea erabiltzeko eta eragina izateko ahalmena ere” (Emakunde, d.g.).

Ikus daitekeenez, definizio ezberdinak aurki ditzakegu hitz honen esanahia bilatzerakoan, baina emandako definizio guzti horiek hartu eta nahastuz gero, argi eta garbi dago prozesu bat dela eta prozesu hori emakumeok geure bizitzaren eta haren inguruko erabakien jabe egitean datza.

Kontzeptu hau 1985. urtean Emakumeen Nazio Batuen III. Mundu Batzarrean agertu zen, baina ez zen 1995eko Emakumeen IV. Mundu Batzarrera arte garatu eta sendotu.

Azkenik, ahizpatasunaren inguruan ere hitz egitea ezinbestekoa iruditu zaigu atal honi amaiera emateko. Ahizpatasuna elkarri laguntzeko prest dagoen emakumeon arteko sare bat da, beste emakumeonganako elkartasuna, enpatia eta hurbiltasuna adieraztea da (De Grado, 2019). Gizapediaren (d.g.) definizioa honako hau da:

“Emakumeen arteko hitzarmena litzateke, helburutzat emakumeen jabekuntza duena, patriarkatuari aurre egiteko. (...) Hartara, ahizpatasuna joera horiek baztertu eta gutxiespen eta jazarpen egoerei elkarrekin aurre egiteko baliabidea litzateke” (Gizapedia, d.g.)

Emakundek, Emakumearen Euskal Erakundea, egindako Feminismoaren eta berdintasunaren hiztegian (2020), Feminismoaren atalaren barruan, ahizpatasunaren kontzeptuaren definizioa egin du eta haien hitzetan, “Emakumeen arteko elkartasuna, emakumeak bultzatzen dituen beste emakume batzuekin harreman positiboak izatera eta haiekin aliantza existentzial eta politikoak sortu eta garatzera, ekintza zehatzen bidez zapalkuntza-molde guztiak gizartetik ezabatzearen alde lan egiteko eta elkarri lagunduta emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboa lortzeko” da.

Ikus daitekeenez, atal honetan agertu diren termino guztiak, bai feminismoa, bai autodefentsa, bai ahalduntzea eta baita ahizpatasuna ere, eskutik helduta doazen kontzeptuak dira, hau da, batak besteari eragiten diola eta argi uzten digutenak elkarrekin borrokatzen jarraitu behar dugula, elkar-lana eta elkar-laguntza ezinbestekoak direlako emakumeen askapenerako bidean.

1.5 Txanogorritxo

Haur literaturaren inguruan hitz eginez gero burura datozkigun izenetako batzuk Charles Perrault, Grimm anaiak eta Hans Christian Andersen idazleak dira, hauek izan baitira gaur egun ezagutzen ditugun istorio famatu gehienen biltzaile edo idazleak (Alegre, 2014).

Grimm anaiak, Jacob eta Wilhelm, hogeitaz hamar urte zituztela liburutegi batean lanean ibili ziren, lehenengoa bibliotekari eta bigarrena idazkari. Horrez gain, irakasle ere izan ziren Kassel, Gotinga eta Humboldt unibertsitateetan. Lan horiez gain, garai hartan ahoz transmititzen ziren istorioen bilketa eta moldaketa bat egin zuten eta hori izan zen ospearen munduan sartu zituena. Bildutako istorio famatuenetako batzuk *Jostuntxo ausarta*, *Erpurutxo*, *Hansel eta Gretel*, eta nola ez, *Txanogorritxo* dira (National Geographic, 2019).

Hans Christian Andersen haur literaturako lehen klasikotzat hartzen da. Erromantizismo garaiko idazleetako bat izan zen, baina idatzitako maitagarrien ipuinak izan ziren benetan ospetsu egin zutenak, haien artean, *Ahatetxo itsusia*, *Sirenatxoa*, *Berunezko soldadutxoa*, *Elur erregina* eta lehen esan bezala, aurrerago Grimm anaiek moldatuko duten *Jostuntxo ausarta* (Ruiza, Fernandez eta Tamaro, 2004).

Charles Perrault familia burges batean jaio zen. Bere anaietako baten eta aitaren pausoak jarraituz, Zuzenbidea ikasteari ekin zion, ikasketetarako zuen erraztasuna frogatuz. Garai hartan, burgesiak etxe ezberdinetan elkartu eta hizketaldi txikiak egiteko ohitura zuen. Topaketa horietan, gonbidatuetako bakoitzak haren trebetasunetako bat erakusten zien gainontzekoei. Batzuk kantatu egiten zuten, beste batzuk dantzatu eta Perraulten kasuan, bere zerbitzariei entzundako istorio ezberdinak kontatu egiten zituen, haien artean *Txanogorritxo*. Hain ziren onak kontakizunak gonbidatuek beti idatzi eta jasota uzteko esaten ziotela, beraz, 1697an, 55 urte zituela, jaramon egitea eta istorio horiek idatzita uztea erabaki zuen, *Cuentos de Mamá Oca* liburua argitaratuz. Liburu honetan *Erpurutxo*, *Loti Ederra*, *Bizar Urdin* eta *Txanogorritxo* aurki ditzakegu, besteak beste (Alegre, 2014).

Gianni Rodarik zioen bezala, bost hitz besterik ez dira behar pertsonaia famatu honen inguruan hitz egiten ari garela asmatzeko: neskatila, basoa, loreak, otsoa eta amona. Esan genezake *Txanogorritxo* haur literaturako pertsonaia famatuenetako bat dela mundu mailan.

Ikusi dugun moduan, hasiera batean, Txanogorritxoren istorioa ahoz transmititutakoa izan zen, Perraultek idaztea erabaki zuen arte. Aurrerago, Grimm anaien moldaketa etorri zen, egun ezagunena dena, eta gaur arte, hamaika bertsio ezberdin aurki ditzakegu, adibidez, 2005ean Kukuxumusuk ateratako *Txanogorritxu eta otso beltzu*; 2014an Txabi Arnalek idatzitako *La ladrona de sellos*; edo Philippe Corentinek 1996an argitaratutako *Señorita sálvese quien pueda*.

Aurreko atalean konturatu garen bezala, feminismoa oso kontzeptu zabala da eta haren barruan azpi-gai asko daude, beraz, lan hau burutzeko azpi-gai horien guztien artean bat hautatu eta horretan zentratu gara. Aukeratu dugun arloa gaur egun emakumeok kaletik bakarrik joatean, bai egunez bai gauez, sentitzen dugun beldurra da. Haur literaturara begira, istorio eta protagonista guztien artean hori hoberen irudikatzen duena *Txanogorritxo* da, zehazki amonaren etxera joateko egiten duen bidea. Emakume gazteei eremu publikoan ibiltzeak dakartzan arriskuez hitz egiten dien ipuina da, gizonen eraso posibleen berri ematen diena.

2 Metodoa

Lan hau burutzeko abiapuntua, erreferentzia bibliografiko ezberdinen bilketa izan da, hasiera batean, haur eta gazte literaturan genero estereotipoen kontzeptua aztertzean oinarritutakoa, hain zuzen ere. Honi esker, hautatutako gaiaren inguruko ezagutzak zabaltzeko aukera izan dugu eta autore eta erreferentzia ezagun ezberdinen berri izatekoa eta horri esker, lanaren gaia zehaztea eta finkatzea lortu dugu hasierakoa sakonduz. Azkenean, jorratu nahi izan dugun gaia gaur egun emakumeok sentitzen dugun beldurra izan da eta horretarako, haur literaturako *Txanogorritxoren* bertsio ezberdinen azterketa egin dugu, emaitzak asmatutako ipuin berri batean islatuz, ipuin tradizional eta modernoek ezaugarriak konbinatuz. Ipuin sorkuntza honen helburua, gauez bakarrik ibiltzeko beldur hori deseraikitzea izan da, ikuspegi feministaren tresnak erabiliz.

Gaia jorratzeko jarraituko dugun prozedura honako hau izan da: hasteko, marko teorikoan aztertutako gaia jarraitu ahal izateko ezagutzea ezinbestekoak diren kontzeptu batzuk definitu ditugu; jarraian, ikertutako haur literaturaren artean, *Txanogorritxoren* istorioan zentratu gara eta ipuin tradizional horren bertsio ezberdinen azterketa egin dugu, hiru parametro kontuan hartuta: testua, pertsonaiak, eta ilustrazioak. Ondoren, ateratako emaitza horiek azaldu ditugu. Ildo beretik jarraituz, ipuin horietatik guztietatik bi *Txanogorritxo* hautatu eta horiekin gure proposamena osatu dugu, hau da, protagonista bakoitzak transmititzen duena eta irudikatzen dituzten estereotipo guztiak kontuan hartuz, gure ipuin propioa sortu eta aurkeztu dugu. Amaitzeko, egindako azterketa honen ekarpenak zehaztu ditugu, baita horrek gudan izandako eragina ere. Gainera, lanaren ahuleziak eta indar-guneak azpimarratu ditugu, eta horrekin batera, hobekuntza proposamenak egin.

2.1 Aztertutako corpusa

Aztertutako corpusari dagokionez, esan bezala, hainbat iturritako eta autore ezberdinen lan, liburu, artikulua, GrAL, elkarrizketa eta dokumental irakurri, ikusi eta aztertu ditugu.

Hasteko, gaiaren inguruan egindako lan ezberdinak analizatu ditugu, interneteko iturriak eta iturri fisikoak erabilita. Jarraian, Xabier Etxanizen “Gaur Egungo Haur eta Gazte Literatura” irakasgaiaren ikasitakoak bilduz eta liburutegi ezberdinetan bilaketa egin ondoren,

Txanogorritxoren istorio ezberdinen zerrenda bat sortu dugu. Historian zehar idatzitako *Txanogorritxoren* bertasioak asko direnez, Gasteizeko Ignacio Aldecoa liburutegian aurkitu ditugun liburuetara murriztu dugu (17) zerrenda eta horien artean, bi hautatu eta sakonki aztertu ditugu. Hauek izan dira aztertutako liburuak:

1. La noche de la visita (2010) – Benoît Jacques
2. Txanogorritxu eta otso beltzu (2005) – Kukuxumusu
3. Osaba otso (2000) – Xosé Ballesteros
4. Txano gorri, berde, hori, urdin eta zuri (1998) – Bruno Munari
5. Zergatik bizi da basoan txanogorritxoren amona? (2006) – Enkarni Genua
6. Caperucita roja (2011) – Adolfo Serra
7. Lo que no vio caperucita roja (2013) – Mar Ferrero
8. La ladrona de sellos (2014) – Txabi Arnal
9. Neu naiz indartsuena (2011) – Mario Ramos
10. Txanogorritxo indartsua (2019) – Vivim del cuentu
11. Confundiendo historias (1970) – Gianni Rodari
12. La niña de rojo (2013) – Aaron Frisch
13. Érase 21 veces caperucita roja (2003) – Ayabo
14. Cuentos en verso para niños perversos (1982) – Roald Dahl
15. Caperucita roja (2014) – Gabriela Mistral
16. ¡Señorita sálvese quien pueda! (1996) – Philippe Corentin
17. Caperucita Roja (1967) – Charles Perrault

Txanogorritxoren bertasio hauek guztiak irakurri ondoren, guztiz tradizionala den *Txanogorritxoren* bertasioa hautatu dugu, originala, Perraultek 1667an idatzitakoa; eta bestetik, modernoagoa den bat, 1996an Philippe Corentinek idatzitako *Señorita sálvese quien pueda*.

Azterketa hau lau arlotan banatu dugu: testua, ilustrazioak, paratestuak eta pertsonaiak, esan bezala, genero-ikuspegitik egindako azterketa izan da.

2.2 Erabilitako tresnak

2.2.1 Bilaketa bibliografikoak

Aztertutako korpusa finkatzeko, hasierako bilketa bat egin dugu, iturri ezberdinak baliatuz: Dialnet, Google Academico, Google bilatzailea, Inguma, liburutegi fisikoak, aldizkariak eta ERIC/Proquest.

Bilaketaren ondoren, beharrezko informazioa hautatzeko, taula bat sortu dugu (ikus 1. eranskina) eta horretarako, gaiaren hitz gakoak bilatu ditugu: haur literatura, sexua eta generoa, estereotipoak eta aurreiritziak. Behin hauek finkatuta, testu bakoitzean, arlo horien inguruko informazioa bilatu eta taulan txertatu dugu, erredaktatzerako orduan errazago aurkitzeko.

Bilaketa hau oso erabilgarria izan da modu honetan historian zehar gai honi buruz egin diren ikerketak eta esan dena ezagutu ahal izan baitugu, hau da, haur literaturak genero ikuspegitik izan duen garapenaren berri izan dugu. Gainera, lortutako informazioa egiaztatutakoa dela baieztatzeko aukera eman digu. Hala ere, alde negatiboak ere baditu, gai honen inguruan hamaika ikerketa egin dira, beraz, asko murriztu behar izan dugu aztertutako korpusa eta murrizketa horretan baliteke informazio baliagarria galdu izana. Murrizketa hori egiteko, soilik 2000. urtetik aurrerako iturriak erabiltzen saiatu gara; hala ere, irakurtzen joan ahala, interesgarriak iruditu zaizkigun autore batzuk agertzen joan dira, beraz, 2000. urtea baino lehenagoko erreferentzia batzuk ere baditugu.

2.2.2 Ikerketa artistikoa: ipuin baten sorkuntza

Ipuina sortzerako garaian, egin dugun lehenengo gauza, ipuin zerrenda luze bat sortzea izan da. Ondoren, zerrenda hori murriztu egin dugu. Zerrenda luze horretan ageri ziren pertsonaia guztien artean *Txanogorritxo* aztertzea erabaki dugu eta behin hautaketa eginda, irakurri eta ipuinaren bertsio guzti horietatik bi aukeratu eta sakonki aztertu ditugu: Perraulten *Txanogorritxo* eta Corentinen *Señorita sálvese quien pueda*. Azkenik, azterketaren ondoren, ateratako emaitzak sortutako ipuinean adierazi ditugu.

Honetarako erabili dugun metodologia edo tresna, ikerketa artistikoa izan da, hau da, ikerketa bat egin eta emaitzak era artistiko batean aurkeztea, gure kasuan sorkuntza literario baten bidez.

Ikerketa artistikoaren ideia 60. hamarkada bukaeran agertu zen, arte eskolak unibertsitateen parte izatera pasa zirenean eta Arte Ederren fakultateak agertu zirenean. Honek artista ezberdinak ikerketan oinarritutako tesi eta doktoretzak aurkeztera eraman zituen eta hauek izan ziren ikerketa artistikoaren lehen urratsak (Calderón eta Hernández, 2019).

Henk Borgdorffek ikerketa artistikoa *boundary work* bat dela dio, hau da, zientziaren eta artearen arteko elkarlana. Ohikoa da, hala ere, azterketa mota honetan “sinesten” ez duen jendearekin topo egitea (Blasco et al., 2013).

Gaur egun, ikerketa artistikoa, diziplina gisa hartzen da, normalizatua, orokortua eta arautua dagoena. Praktikan jartzen dutenak lan sinboliko, diseinu iraunkor eta sorkuntza arrazionalizatu baterako entrenatzen ditu (Steyerl, 2010).

2.3 Prozedura

Aurretik aipatu moduan, lanaren abiapuntua erreferentzia bibliografikoen bilaketa izan da. Hasieran bilaketa zabala izan da, baina aurrerago, topatutako guztien artean, irakurritz eta puntu garrantzitsuak bilduz, corpusa mugatu dugu eta azkenik, honen azterketa sakona egin.

Behin informazioa eskuratuta, helburuak zehaztu ditugu, lan honekin lortu nahi duguna azaldu dugu, alegia.

Helburuak argi izanda, irizpide ezberdinetan oinarrituz, aztertutako ipuinen zerrenda egin dugu. Aurretik adostutako jarraibide batzuei esker, ipuin hauek xehetasun guztiz arakatu ditugu eta aurkezten diren edo aurkezten ez diren estereotipoak zerrendatu.

Jarraian, ateratako ondorioak islatu ditugu emaitzen atalean eta amaitzeko, proposamen didaktiko propio bat egin dugu; irakurritako ipuin guztietatik bi protagonista hautatu eta ipuin berri bat sortu dugu, ikerketa honi esker lortutako jakintza eta ondorio guztiak islatuz.

2.4 Helburuak

Lana egiten hasi aurretik, helburu batzuk finkatu ditugu:

1. Haur literatur tradizionalak gehien sustatzen dituen balioak ezagutzea.
2. Balio horiek ezagututa, alternatibak bilatu eta eskaintzeko gaitasun eta irizpideak garatzea.
3. Ipuin tradizional eta garaikideen artean lotura bat sortzea, tradizionalak baztertu gabe, bakoitzaren alde positiboak erabili eta negatiboak aurre egitea.
4. Etorkizunerako baliagarria izango zaigun haur literaturako ipuin ezberdinen ezagutza zabaltzea.
5. *Txanogorritxoren* adibidea erabiliz haur literaturak izan duen garapenaren berri izatea.
6. Gaur egun, neska edo emakume batek etxera itzultzerako orduan sentitzen duen beldurraren gaia azalratzea eta modu artistiko batean eta protagonista ezagun bat erabiliz, (*Txanogorritxo*), beldur hori menderatzen saiatzea.
7. Ipuin baten sorkuntzaren bitartez, istorio ezberdinen azterketa egin ondoren ateratako emaitzak islatu eta transmititzea.

3 Emaidzak

Atal honetan, hainbat liburu, generoaren ikuspegitik irakurri eta aztertu ondoren ateratako emaitzak azalduko ditugu. Egiturari dagokionez, hasteko, ondorio orokorrak bistaratuko ditugu. Aipatutako azterketa horretarako, ipuin bakoitza hiru parametrotatik ikertu dugu eta horretarako taula bat erabili dugu: hasteko, testuak berak dioena arakatu dugu; ondoren, pertsonaiak eta haien ezaugarriak; eta azkenik, ilustrazioak.

Aurrerago, ipuin proposamen bat egingo dugu, beraz, horretarako bi istoriotako protagonistak hartu eta ipuin propio bat sortu dugu. Hautaketa horretarako alde batetik, tradizionalagoa den Perraulten *Txanogorritxo* (1967) aukeratu dugu, eta bestetik, berritzaile edo modernoagoa den *Señorita salvese quien pueda* (1996), Corentinek idatzitzailea. Lehenengoa, tradizionala edo herri ipuina dela esan dezakegu, belaunaldiz belaunaldi transmititu izan den kontakizun bat delako, hasieran ahoz eta gero idatziz. Bigarrenaren kasuan, berriz, herri ipuinaren istorioaren oinarria mantendu arren, Txanogorritxoren pertsonaia tradizionalak transmititzen dituen estereotipoekin eta baloreekin hautsi egiten du, hau da, protagonista ahul eta beldurti bat izatetik, bihurri eta ausarta izaten bukatzen du.

Erabakitako bi ipuinen hautaketa ulertzeko ezinbestekoa da ipuin tradizionalek eta modernoek dituzten onura eta eragozpenak zeintzuk diren zehaztea.

Ipuin tradizionalekin hasiz, antzinan ahoz transmititu ohi ziren istorioak dira, autore anonimoak izaten zituztenak. Ahozkotasun horrek inplikutzen zuena kontalarien formakuntza behar eza zen, orduan eta sinpleago eta azkarrago kontatu zenbat eta ulertzeko errazagoak izaten baitziren istorioak. Hori dela eta, oso erraza zen herritarrengana iristea, beraz, literatura beti izan da momentuko gizartearen balore eta ideiak herriari transmititzeko erreminta nagusia. (Ezezaguna, 2020).

Ipuin tradizioaletan pertsonaiak bi multzotan banatzen dira, emakumeak eta gizonak. Emakumeen barruan, beste bi azpitalde aurki ditzakegu, onak edo zintzoak eta gaiztoak. Onen kasuan, protagonistak beti izan ohi dira ederrak, gazteak eta onberak. Gaiztoen kasuan berriz, zaharrak eta bekaizkorrak izaten dira; gainera, oso gaizki ikusiak daude alargundu arren, berriz ezkontzen baitira. Alde batetik, aita papera egiten dutenak daude, hauek on hutsak izaten dira, amaorde maltzurrek kontrolatzen dituztenak. Bestetik, Printzearen edo Ehiztariaren pertsonaia daukagu, ona eta azkarra dena; gainera, beti nahi duena lortzen du. Bi

profil hauek patrairkatuaren eredu maskulinoaren ezaugarri guztiak betetzen dituzte, gerlariak baitira eta bakean bizi nahi baitute (Segura, 2014). Esandako guztia kontuan hartuta, esan dezakegu ipuin tradizionalak erregimen matxista eta menderatzaile bat jarraitzen dutela eta emakumeak pertsona pasibo eta esanekoak bezala irudikatzen ditu eta gizonak, berriz, aktibo eta abenturazale gisa. (Ezezaguna, 2020).

Ipuin tradizionalen beste ezaugarrietako batzuk, duten karga sinboliko altua eta funtzio katartikoa dira. Sinbologia horren atzean ezkutuan beti aurki dezakegu mezu sakonago bat, otso maltzurren edo ama-orde gaiztoen arriskuaz ohartarazteaz aparte (Martín, 2011).

Bestalde, ipuin modernoek kasuan, autore ezaguna duten eta idatziz transmititzen diren ipuinak dira. Tradizionalen kasuan ez bezala, hauek idazterako orduan garrantzitsua da idazleetako bakoitzak duen formakuntza, istorio landuagoak aurkezten baitituzte.

Beste ezaugarrietako bat, gizartearen aldaketak islatzen dituzten istorioak dira, hau da, esan genezake, nahiz eta oraindik aldaketa asko geratzen diren egiteke, aurretik aipatutako matxismo horren maila murriztu egin dela eta jada gaur egun ikus ditzakegun pertsonaiek, bai gizonezkoek eta baita emakumeek ere, beste ezaugarri asko dituztela.

Aukeratutako bi bertsiorekin egin dugun bezala, irakurritako gainontzeko liburuekin ere banaketa berbera egin nahi izan dugu eta bi multzo sortu ditugu: Perraulten istorioaren antzekoagoak direnak; eta jatorrizko istoriotik urruntzen direnak. Lehenengo multzoko adibide gisa, Bruno Munari eta Enrica Agostinelliren *Txano Gorri, Berde, Hori eta Zuri* (1998) dugu, edo Gabriela Mistralek idatzitako *Caperucita Roja* (2014). Bigarren multzoko adibide Txabi Arnalen *La ladrona de sellos* (2014) dugu, edo Vivim del cuentu-ren *Txanogorritxo indartsua* (2019).

Emaitza horiek guztiak islatzeko taula bat egin dugu, non banan-banan ipuinetako bakoitza aurretik aipatutako lau parametroak jarraituz aztertu dugu (ikus 2.eranskina).

Banan banakako emaitzak atera ondoren, emaitza orokorrago batzuk atera nahi izan ditugu.

Testuan zentratuz gero, esan dezakegu euskara ez dela hizkuntza sexista, gaztelania izan daitekeen bezala. Hala ere, hitzek adierazi nahi dutena hurbiletik miatuz gero, ikus dezakegu kontakizun osoa guztiz sexista dela. Perraulten istorioaren kasuan, amaiera zoriontsurik gabeko ipuina da, non otsoak amona eta Txanogorritxo jaten dituen. Beste ipuin tradizionalak dagokienez, Perraulten istorioaren amaiera hori mantendu eta aipatutako amaiera zoriontsu hori gehitu egiten diote, hau da, bai amona eta baita Txanogorritxo otsoaren sabeletik ateratzea lortzen dute; eta gainera, Perraulten ipuineko ikaskizuna ezabatu egiten dute. Hala ere, idazleak otsoarekin ez du harrapakari-animalia bat irudikatzen, gizon seduzitzailearen metafora baizik (Mangione, 2018).

Analisiaren bigarren parametroarekin jarraituz, tradizionalagoen multzoko pertsonaia garrantzitsuenen ezaugarriak gehienetan berdinak dira:

1. Txanogorritxo: inuzentea, tuntuna, beldurtia, manipulagarria, salbatuko duen heroia beharra duena, desobedientea eta horren ondorioz, zigorra jasotzen duena eta beti eta batez ere, emakumea. Ezaugarri guzti horiek osatzen duten pertsonaiak irudikatu nahi duena neskatila baten pubertaroa da (Segura, 2014) eta baita neskatila batek garai horretara iristean pairatzen duen bi munduren arteko borroka, plazerrarena eta betebeharrarena (Mangione, 2018).
2. Amona: ahula, tuntuna, defendatzen ez dakiena eta emakumea. Amonari gertatutakoak eta pertsonaiak berak ikustarazi nahi diguna, neskatilaren desobesientzia horrek dakartzan ondorio negatiboak dira, gainera, neskatilak berak jasatez gain, amona gajoak ere jasaten dituenak (Segura, 2014).
3. Otsoa: azkarra eta maltzurra. Bestalde, nahiz eta euskarazko istorioetan arra edo emea den ez bereizi, gaztelaniazko bertsio guztietan otsoa beti da gizona “el lobo” eta dudarik ez dago, denok dakigo gizon bati buruz ari garela.

Alde batetik, Bruno Bettelheimek (in Ezezaguna, 2020) zioenaren arabera, pertsonaia honek Edipo-konplexuaz hitz egiten du, hau da, otsoak aitaren irudiaren zati bat irudikatzen duela; lehen Txanogorritxoren atalean aipatutako bi munduetako bat, plazerrarena, tendentzia egoista edo berekoia, asoziala, oldarkorra eta suntsitzailea duena (Mangione, 2018).

4. Ehiztaria: azkarra, ona, istorioko heroia eta beti eta batez ere, gizona.

Berriz ere Bettelheimen (in Ezezaguna, 2020) hitzak hartuz, ehiztariak, otsoaren kontrakoa irudikatzen du, aitaren irudiaren beste aldea, eginbeharrena, inpultso eskuzabal, sozial eta erreflexiboena (Mangione, 2018).

Bestetik, Cristina Segurak (2014) dioten moduan, ehiztaria gizon ona da, zintzoa, basoa menderatzen duena eta emakumeen babeslea, gerlari erreferentea.

Modernoagoen inguruan hitz eginez gero, ezaugarri horiek aldatu egiten dira eta zailagoa da ezaugarri orokor batzuk zehaztea. Kasu hauetan, ehiztariaren eta amaren pertsonaiak gehienetan desagertu egiten dira eta amonarena, batzuetan desagertu edo garrantzi gutxiko pertsonaia gisa agertzen da. Ageri ohi diren ezaugarrien laburpen bat hau izan daiteke:

1. Txanogorritxo: azkarra, ausarta, beldurrik gabekoa. Liburu bakoitzaren kasuan ezaugarriak aldatu egiten dira baina orokorrean, neskatila inozentearen irudiarekin apurtzen duten ezaugarriak izaten dira, emakumeen ahalduntzea irudikatzen dutenak.

Otsoaren kasuan, berriz, aukera bat baino gehiago daude:

2. Otsoa: batzuetan inuzentea, tontoa eta beldurtia; besteetan, lagunkoia. Istorioko doilorra izatetik, barregarri geratzen dena izatera pasatu ohi da.

Ilustrazioei dagokienez, pertsonaiak karakterizatzerako orduan, kasu ia guztietan, karakterizazio hori gaur egungo gizartean ezagutzen ditugun estereotipoak erreproduzituz egin dira. Txanogorritxoren kasuan, adibidez, “neska idealaren” irudiaren estetika jarraitzen dutela esan dezakegu, hau da, ile luzea, soinekoa, argala, etab (Clarin, 2013). Otsoari berriz, itxura beldurgarri eta indartsua ematen diote, maskulinitatearen eredu hegemonikoa irudikatuz.

Azkenik, paratestoei edo liburuen kanpoko itxurari erreparatuz, *Txanogorritxoren* istorioak transmititu nahi duen zintzotasun mezua neskei zuzendua dago, baina, kontakizun hau ez da genero zehatz bati lotua izan, beraz, aztertutako ipuinen kasuan, kanpoko itxurak, erabilitako koloreak, letra motak edota idatzitakoa neutroa dela esan dezakegu ez baititu egungo gizartean genero zehatz bati atxikita dauden koloreak erabili.

Hau guztia ikusita, gure ipuinen sorkuntzarako bi Txanogorritxo elkartzearabaki dugu eta bildu ditugun protagonistaren ezaugarri-multzoak bi hauek dira:

Alde batetik, tradizionalagoa izango den protagonista oso beldurtia, zintzoa eta ahula izango da, heroi baten zain dagoena. Bestetik, bigarren protagonista bihurria, izaera handikoa eta oso azkar eta ausarta izango da.

3.1 Txanogorritxo – Charles Perrault

Charles Perraultek 1697. urtean idatzi zuen Txanogorritxoren lehenengo bertsioa, hau da, bera izan zen pertsonaia famatu eta historiko honen inguruan idatzi zuen lehena. Ipuinaren aldaera hau, geroago azalduko dugun moduan, agresiboegia eta gogorregia zen haurrentzako, eta horregatik, aurrerago, 1812. urtean Grimm anaiek Perraulten ipuina hartu eta haurrentzako egokiak ez ziren pasarteak moldatu zituzten, nahiz eta sinbolikoki edo modu ezkutuan hor jarraitzen duten.

Istoria sinbologiaz beteta dago, adibidez, *Txanogorritxo* bera pubertaroaren irudikapen bat da; inozentea da, baina baita bihurri eta desobedientea ere, eta horrek, amari kasurik ez egiteak, zigor moduan familia osoarentzako zorigaitzak dakartza, hori neskatilei zuzendutako obediencia mezu bat da (Segura, 2014).

Bestalde, Txanogorritxo amonaren etxera heltzean gertatzen dena beste sinbolo bat da. Idazleak otsoak arropa erantzi eta harekin ohean sartzeko eskatzen dionean eta “jan” egiten duenean, benetan irudikatu nahi izan duena sexu abusu edo otsoaren sexu egarria dira (Bermudez et al., 2012).

Aurrerago Grimm anaien moldaketari esker, kontakizun honen atzeko mezu ezkutu hau desagerrarazi ez arren, Grimm anaien ipuin guztiek sexu-zama handia baitute, hain nabarmena ez izatea lortu zuten eta haien moldaketa honetan, ez da ohikoa metafora honen berri izatea, nahiz eta sinbolikoki hor jarraitzen duen (Hernández, 2019).

Jatorrizko istorio honetan testua ikertu eta gero, esan genezake hitzek transmititzen duten mezua sexista dela, batez ere, kontuan harturik ikaskizunak irudikatzen duena:

Ikusten da hemen, neska-mutilak
edozeini kasu eginda dabiltzala oker
batez ere neskatila eder,
atsegin eta segailak.
Ez zaitez, beraz, harritu

otsoak hainbeste jaten baditu.
Otsoa, diot, ez dira-eta otso guztiak
ezpal beretik sortuak;
aldarte onekoak ere ba omen dira
zarata, haserre eta gorroto gabeak
neskatilen atzetik dabilta jira eta bira;
jator adeitsu eta goxo
etxeraino iritsi, gelaraino ere temoso.
Baina, ai ene! Nork ez daki otso elezuriak
direla guztiz arriskugarriak (Perrault, 1993).

Marko teorikoko Generoa eta sexua atalean aipatutako hainbat autoreren iritzia eta haiek emakumearen inguruan egindako definizioak kontuan hartuz, bereziki Lasarteren (2012) definizioa, gure interpretazio pertsonala egin dugu. Ikaskizunean aipatzen duen otsoa, emakumea soilik objektu sexual gisa ikusten duen gizonarekin identifikatu dugu. Dioenez, gaur egungo neskatilak, batez ere ederrak eta atseginak direnak, edozeinekin fidatzen dira, beraz, arrazoi horrengatik izaten dira bortxatuak, hau da, haien erruagatik; eta kaletik halako gizon maltzurak daudela jakinda, ez liratekeela harritu beharko halakorik gertatuz gero.

Historian zehar, betidanik egon dira emakume desagertuen kasuak. Nerea Barjolak (2018) bere tesiari buruzko elkarrizketan aipatu bezala, garai bakoitzak du emakume gazteei desira eta askatasuna mugatzeko errelato beldurgarriak.

Zoritxarrez, jada ohikotzat hartzen diren kasuak dira, inor harritzen ez duten kasuak, baina, tortura sexuala, desagertzen edo hilketa horiek ez dira zoritxar kontuak edo “gertatzen diren gauzak”, gizarte-sistema egituratzen duten ideia politikoak baizik. Ondorio politiko bat izaten da, erreakzio bat, zigor bat ezarritako arauak hausteagatik. Kasu horien guztien albisteak hartuz gero ageri den hitza desagertzea da, baina, berriz ere, Barjolaren *Microfísica sexista del poder* (2018) liburuko hitzak hartuz, emakume horiek ez dira desagertzen, desagertzera behartzen dituzte. Ikaskizun honetan ikus dezakeguna, berriz, gertakari horiek normalizatzeko nahia da eta emakumeak biktima moduan ikusi beharrean, axolagabe batzuen moduan irudikatzen ditu; gaztelaniazko atsotitzak dioenez, “el que avisa no es traidor” emakumeen gain utziz ardura eta erantzukizun guztia, biktima errudun bihurtuz eta erasotzailea errugabea.

Pertsonaiei eta haien ezaugarriei dagokienez, aurretik esan bezala, ageri diren protagonistak, Txanogorritxo, amona eta otsoa dira. Ageri diren emakume guztiak, bai Txanogorritxo, bai amona, baita ama ere rol femenino tradizionala betetzen dute, ahulak eta zintzoak dira, gizon baten laguntzaren edo salbazioaren esperoan daudenak. Protagonista nagusia, nola ez, oso ederra da, desiragarria izan dadin ederra izan behar duelako eta guztiz inuzentea, edonorekin fidatzen baita. Otsoaren kasuan, berriz, lehen esan bezala, euskarazko kontakizunetan ez da desberdintzen arra edo emea den, hala ere argi eta garbi dugu arra dela beraz, rol maskulino tradizionala betetz, indartsua, azkarra eta maltzurra.

3.2 Señorita salvese quien pueda – Philippe Corentin

Liburu hau Philippe Corentinek 1996. urtean idatzi zuen. Esan dezakegu bertso berritzailea dela protagonista tradizionalaren ezaugarri guztiekin hausten baitu. Perraultek ezaugarriak ikusi eta gero, Corentinek kontrakoak esleitu zizkion bere neskatoari:

2. taula: Perrault-Corentin konparazioa.

Perrault	Corentin
TXANOGORRITXO	
Beldurtia	Ausarta
Ahula	Indartsua
Zintzoa	Bihurria
Desobedientea eta zigortua	Desobedientea
Inuzentea	Gogaikarria
Tuntuna	Azkarra
Manipulagarria	Izaera sendo eta handikoa
Fina eta femeninoa	Astakiloa
OTSOA	
Azkarra	Tuntuna

Ausarta	Beldurtia
Maltzurra	Inuzentea
Indartsua	Ahula
Istorioko doilorra	Barregarri geratzen dena

Iturria: egileak egina.

Kontakizun honetan protagonista bakarra Txanogorritxo da eta otsoa eta amona bigarren mailako pertsonaiak dira. Moldaketa honetan jada Txanogorritxo ez da otsoaren beldur den neskaita gizajo bat, alderantziz baizik; izaera handiko neskaxa gogaikarria da, edonor zirikatzen ibiltzen dena eta manipulatzeko uzten ez dena. Denak dira bere beldur eta edonorengana gerturatzen denean izututa “kontuz badatorrela!” oihukatzen dute.

Esan dezakegu Corentinek bere bertsio honetan Perraulten istorioak zuen sexismo hura desagerrarazi duela, emakumeak gizonen zerbitzura dagoen objektu (Lasarte, 2012) izateari utzi diola.

Gainera, konproba dezakegunez, sexu abusuen metaforaren arrastorik ere ez dago kontakizun honetan.

4 Sortutako ipuina

Bazen behin pertsonatxo bat beti bisera gorri batekin zebilena eta horregatik, Txanogorritxo deitzen zioten. Gasteizko alde zaharrean bizi zen eta 22 urte zituen. Oso alaia eta maitakorra zen, beti zegoen barre egiteko eta barre eginarazteko prest eta horregatik, lagun mordo bat zuen beti inguruan, ez zuen inoiz ere ezer bakarrik egiten. Gainera, oso ederra eta pertxenta ere bazen. Beti zebilen distrahituta, bere munduan sartuta eta lagunek maiz iseka egiten zioten horren kontura.

Larunbatero bezala, Txanogorritxo Gasteizko Aiztogile kalean zegoen bere lagunekin jolasean. Bat-batean bere sakelako telefonoa joka hasi zen, begiratu eta: ama. Telefonoa hartu eta amarekin elkarrizketa labur bat izan zuen:

- Kaixo amatxo!
- Kaixo maitia, lagunekin jolasean zabilta?
- Bai, beti bezala.
- Ba sentitzen dut zure dibertimendua horrela moztea, baina etxera etortzeko ordua da.
- Jo ama, utzidazu pixka bat gehiago geratzen! Nire lagun guztiek hemen jarraitzen dute oraindik!

Esan zion Txanogorritxok amari haserre tonuarekin.

- Sentitzen dut bihotza baina berandu da eta bihar goiz jaiki behar duzu.
- Ongi da, banoa.

Deia moztu eta tristura handiz lagunak agurtu zituen. Etxerako bidea ez zen luzea, 10 bat minutu besterik ez zuen behar izaten heltzeko. Lurrera begira zihoan bere buruarekin hitz egiten eta supituki oin iletsu batzuk ikusi zituen bere parean. Poliki-poliki begiak igotzen hasi zen, aurpegia ikusi zion arte eta hara non aurkitu zuen OTSO BASATIA! Ikusi bezain pronto, hain beldurtia zen Txanogorritxok otsoa disimulu handiz saihestu eta bere bidearekin jarraitzen saiatu zen, baina otso basatiak besotik heldu eta berarekin jolasten gelditzeko esan zion. Txanogorritxori jolastea izugarri gustatzen zitzaion, baina momentu horretan ez zuen otsoarekin jolastu nahi, gainera, ama etxean zain zuen eta berehala iristen ez bazen errieta egingo zion. Otsoak Txanogorritxok alde egin nahi zuela ikustean, adarra jotzen hasi zitzaion eta jada hura jateko puntuan zegoela, Señorita agertu zen.

Señorita Gasteizko alde zaharrean bizi zen beste neskatila bat zen, bihurria eta izaera handikoa. Beti ingurukoak zirikatzen zebilen, baina hala ere, asko maite zuten. Heriotza zen neskatxa honi beldur ematen zion gauza bakarra, beste edozeri bitan pentsatu gabe aurre egiten zion. Gainera, benetan azkarra zen eta gehienetan adimen handi hori gaiztakerietarako erabiltzen zuen.

Han zeuden Txanogorritxo gizajoa eta Otso maltzurra, parez pare, bata txiki eta bestea handi. Orduan Señorita Otsoarengana isil-isilik eta poliki-poliki gerturatu eta atzamar erakuslearekin bizkarrean hiru kolpetxo jo zituen. Otsoak izugarritzko gosea zuen, beraz, bere afaria eteteagatik haserre bira eman bezain pronto, Señoritak ukabila prestatu eta sudurrean muturrekoa eman zion. Otsoak minez eskuak sudurrera eramane zituen eta momentu horretantxe, Señoritak hankartean ostikada bat eman zion. Otsoa guztiz minduta lurrera erori zen eta halaxe oihukatu zion neskatxa ausartak:

- Hemendik aurrera edonor molestatzeko asmoa baduzu, pentsatu ezazu bitan! Ni hurbil izango nauzu eta.

Hori esan, Txanogorritxo beldurtia eskutik hartu eta elkarrekin alde egin zuten etxerantz. Orduan, konturatu zen ez zegoela bakarrik eta beste mila emakumeren laguntza eta sostengua zuela eta poliki-poliki emakume sendoen sare horri eta bere burua zaintzeko gaitasunari esker, Txanogorritxok beldurra alde batera utzi eta bere buruarenganako konfiantza areagotu zuen.

Handik aurrera, otsoek urrunean Señorita, Txanogorritxo edo bere lagunak gerturatzen ari zirena ikustean, “KONTUZ BADATOZELA!” oihukatu eta ihes egiten zuten.

Ikaskizuna:

Ikusten da hemen, mundua
otso elezuriz dagoela betea.

Orain arte, inork aurre egiteko adorerik izan ez duenez,
oso lasai bizi izan dira animalia zital hauek.

Baina hemendik aurrera,
ez zaitez, beraz, harritu
Señoritak hainbeste jaten baditu.

Baina, ai ene! Nork ez daki
egingo dietela ordainarazi
bihotzik ez duten guzti horiei?

5 Ondorioak

5.1 Ondorioak

Lanean zehar hainbat kontzepturen definizioak egin ditugu autore eta aditu ezberdinen iritzi eta esperientzietan oinarrituz, baina esan genezake, egindako lanaren ardatza edo oinarria feminismoa dela. Literatura eta haren parte diren pertsonaiak eta haien ezaugarriak, garai bakoitzeko gizartearen isla dira eta gure ustetan, hori argi eta garbi ikus dezakegu feminismoaren garapenaren eta historian zehar Txanogorritxoren istorioak izan duen garapena aztertuz gero.

Jatorrizko istorioan, emakumea gizonen zerbitzura dagoen objektu sexuala da eta feminismoa, egoera hori gehiago jasan nahi izan ez zuten emakume batzuen eskutik sortu zen. Poliki-poliki, borrokatuz, feminismoak aurrera egin du eta geroz eta mugimendu eta pentsamendu zabalagoa bilakatu da, pertsona guztien berdintasunetik pauso txiki bat gertuago kokatuz. Horren isla, istorioaren moldaketa alternatiboak dira. Oraindik ibiltzeko bide luzea geratzen den arren, emakumea esklabo gisa hartzen zuen ikuspuntu horrek aldaketak izan dituela bistan da.

Beraz, ondorio gisa, deskubritu dugu gaur egun Txanogorritxoren inguruan dauden ikuspuntuak asko aldatu direla eta hori feminismoaren eraginez gizarteak izandako aldaketei zor diegula. Lana egin ondoren, Txanogorritxo moldaketa ezberdinen zerrenda luze bat sortzea lortu dugu, etorkizunean erabilgarria egingo zaiguna.

5.2 Hausnarketa

Egindako bidearen ondoren, esan genezake haur literaturaz genuen pertzepzioa guztiz aldatu dela. Herri ipuinak gure usadioaren parte diren arren, ez gara inoiz haien aldekoak izan, transmititzen dituen balioak egokienak ez direla uste baitugu. Horren aurreko soluzio moduan, istorio “desegoki” horiek baztertzea eta ez erabiltzea zela uste genuen, baina lan hau burututa, konponbidea hori ez dela konturatu gara.

Ipuin horiek hartu eta alde batean utzi beharrean, gustuko ez ditugun balore horiek hartu eta eraldatuz haurrengana lehenago iritsiko gara, hau da, azken finean, tradizioaren parte diren istorio eta pertsonaiek, pertsonaia ezezagun batek baino azkarrago eta errazago ematen diete arreta haurrei, beraz, horretaz baliatu eta aurretik aipatutako balio horiek oinarritzat hartuz, berriak sortzea dela egokiena uste dugu. Gure ipuin klasiko baten aldaera proposamena egin dugun bezala, usadioaren parte den protagonista, ezaugarri eta balio alternatibo batekin alderatu eta lotu, bakoitzaren alde negatiboak bestearekin betez eta bien positiboak probetxua ateraz.

Ipuin tradizionalei dagokienez, esan dugun bezala, transmititu nahi dizkigun balore matxista eta zapaltzaileak ez zaizkigu egokienak iruditzen baina alde batera utzi beharrean, hori oinarri hartuta gaiaren lanketa bat egitea ideia ona iruditzen zaigu, adibidez, Perraulten istorioa eta modernoagoa den beste bat jarraian kontatu eta alderatuz. Hala ere, horrek ez du esan nahi jada gaur egun ipuin moderno matxistarik, homofoborik, transfoborik, arrazistarik, etab. existitzen ez denik.

5.3 Hobekuntza proposamena

Élia Lópezek (2005) dioen bezala, Haur Hezkuntza identitatearen eraikuntzarako aldirik garrantzitsuen da. Faktore askok dute eragina aipatutako eraikuntza horretan, adibidez, garai honetan bizitako esperientziek, sortutako harremanek, jasotako heziketak eta irakurritako liburuek. Haurrek belaki batek bezala inguruan gertatzen den guztia xurgatzen dute eta garrantzi handia dute adin honetan eskaintzen zaizkien estimuluek. Estimulu horietako bat liburuak dira, beraz, kontu handiz egin behar da eskainiko zaionaren aukeraketa eta eskaintakoaren inguruan egingo den lanketa. Beraz, gaia hain interesgarria izan arren, berebiziko garrantzia izango duen gaia da eta bere izaera nolakoa izango den eta bere pentsatzeko modua nolakoa izango den definituko duena. Duen garrantziaren maila ikusita, lanketa sakona eskatzen du eta izan dugun denborarekin ez da nahikoa izan horretarako.

Bestetik, historian zehar Txanogorritxoren hamaika bertsio idatzi dira, izan ere, haurrentzako ipuin klasikoetatik azertuena eta bertsio gehien dituen da, hainbeste izan dira ezin izan ditugula denak irakurri, batetik, denbora faltagatik eta bestetik, hainbat jada eskuragarri ez daudelako edo eskuratzeko oso zailak direlako. Hala ere, esan dezakegu, denbora muga horren ondorioz ipuin guztiak ezin izan ditugunez aztertu, sakonki aztertutako bi bertsioak xehetasun handiz lantzeko aukera eman digula.

Bibliografia

Erreferentzia bibliografikoak

- Agostinelli, E. eta Munari, B. (1998). *Txano Gorri, Berde, Hori, Urdin eta Zuri*. Bilbo: Haritza.
- Alegre, B. (2014). *Comparativa de autores: Perrault Andersen y los hermanos Grimm*. [Gradu Amaierako Lana]. Universidad de Valladolid
- Alvarez, A., & Lasarte, G. (2012). *Gorputza eta generoa: euskal kulturen eta literaturan*. 157-175. Gasteiz: Emakunde.
- Antón, I. (2017). *Literatura infantil y juvenil: cuentos de hoy, estereotipos de siempre*. [Gradu Amaierako Lana]. Euskal Herriko Unibertsitatea
- Arnal, J. I. (2007). Haur Hezkuntza. Gizonon Erronka. *Ikastorratza aldizkari elektronikoa, 1*, 8-16.
- Arnal, J. I. (2014). *La ladrona de sellos*. Zaragoza: Edelvives.
- Ballesteros, X. (2000). *Osaba otso*. Pontevedra: Kalandraka.
- Bermúdez, C., Dominguez, E., García, S., Garrido, N., Marfil, X., Ortiz, N. eta Romero S. (2012). *El maravilloso mundo de los cuentos de hadas y su simbología*. Didáctica de la literatura infantil y juvenil. Material argitaratu gabea.
- Blasco, S., Insúa, L., Ramírez J., Fernández, B., Grande, H., Fernández, A. eta Simón, A. (2013). *Investigación artística y universidad: materiales para un debate*. Madril: Ediciones asimétricas.
- Bourhis, R., Leyens, J-P. (1996). *Estereotipos, discriminación y relaciones entre grupos*. Madril: Mac Graw Hill.
- Calderón, N. eta Hernández F. (2019). La Investigación Artística como espacio disruptivo de lo artístico y lo pedagógico. 137-6. Bartzelona: Ediciones OCTAEDRO.
- Caricote, E. (2006). Influencia de los estereotipos de género en la salud sexual en la adolescencia- *Educere, 34* (10), 463-470.
- Centro de enseñanza superior en humanidades y ciencias de la educación don bosco (2020). El valor del cuento tradicional en la formación inicial del profesorado de Educación Infantil y Educación Primaria. *EDUCACIÓN Y FUTURO: Revista de investigación aplicada y experiencias educativas, 42*.

- Cervera, J. (1989). En torno a la literatura infantil. *Revista de Filología y su Didáctica*, 12, 157-168.
- Córdoba, D. (2005). Teoría queer: reflexiones sobre sexo, sexualidad e identidad. Hacia una politización de la sexualidad. *Teoría queer. Políticas bolleras, maricas, trans, mestizas*, Madrid, Egales, 21.
- Corentin, P. (1996). *Señorita sálvese quien pueda*. Bartzelona: Corimbo.
- Dahl, R. (1982). *Cuentos en verso para niños perversos*. Bartzelona: Penguin Random House.
- De Grado, L. (2019). Sororidad, la alianza entre mujeres que lo cambia todo. *Efeminista*. Honako webgune honetatik berreskuratua [2021eko, maiatzaren 25ean]: <https://www.efeminista.com/sororidad-mujeres/>.
- Díaz, S., Mora, C., Riobueno, I., & Toscano, A. (2020). Autodefensa Feminista y su efecto sobre el sexismo benévolo en un grupo de mujeres universitarias. *Boletín Científico Sapiens Research*, 10, (1), 9-16.
- Etxaniz, X. (1997). *Haur eta gazte literatura kontzeptuaren definizio baten bila*. Atarrabia: Pamiela.
- Etxaniz, X. eta Lopez, M. (2001). Euskal haur eta gazte literaturaren sistemaren eraketa. *Egungo Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Etxaniz, X. (2011): La transmisión de valores en la literatura, desde la tradición oral hasta la LIJ actual, *Ocnos*, 7, 73-83.
- Ezezaguna (d.g.). Ahizpatasuna. *Gizapedia*. Honako webgune honetatik berreskuratua [2021eko maiatzaren 11n]: <https://gizapedia.hirusta.io/ahizpatasuna/>.
- Ezezaguna (2013). ¿Cómo es la mujer perfecta (según los hombres)? *Clarín*. Honako webgune honetatik berreskuratua [2021eko, martxoaren 24ean]: https://www.clarin.com/entremujeres/pareja-y-sexo/pareja/mujer-perfecta-segun-hombres-caracteristicas-fisicas-personalidad_0 BkSycTKDQx.html.
- Ezezaguna (2020). El valor del cuento tradicional en la formación inicial del profesorado de Educación Infantil y Educación Primaria. *EDUCACIÓN Y FUTURO: Revista de investigación aplicada y experiencias educativas*, 42.
- Facio, A., eta Fries, L. (2005). Feminismo, género y patriarcado. *Academia. Revista sobre Enseñanza del Derecho de Buenos Aires*, 3, (6).
- Ferrero, M. (2013). *Lo que no vio caperucita roja*. Zaragoza: Edelvives.

- Fonseca, C. eta Quintero, M.L. (2009). La Teoría Queer: la de~construcción de las sexualidades periféricas. *Sociológica*, 69, 43-60.
- Fonseca, J. eta Ruiz, M. (2018). Erresilientzia, ahalduntzea eta gizarte-hezkuntza. *Zerbitzuan: Gizarte zerbitzuetarako aldizkaria*, (67), 119-128.
- Frisch, A. (2013). *La niña de rojo*. Pontevedra: Kalandraka.
- Gamba, S. (2008). Feminismo: historia y corrientes. *Diccionario de estudios de Género y Feminismos*, 1-8.
- García, D. C. (2005). Teoría queer: reflexiones sobre sexo, sexualidad e identidad. Hacia una politización de la sexualidad. *Teoría queer. Políticas bolleras, maricas, trans, mestizas*, Madrid, Egales, 21.
- Genua, E. (2006). *Zergatik bizi da basoan txanogorritxoren amona*. Donostia: Erein.
- Hernandez, I. (2019). Hermanos Grimm, los coleccionistas de cuentos. *Historia. National Geographic*. Honako webgune honetatik berreskuratua [2021eko otsailaren 16an]: https://historia.nationalgeographic.com.es/a/hermanos-grimm-coleccionistas-cuentos_13190.
- Jacques, B. (2010). *La noche de la visita*. Barcelona: A buen paso.
- Kukuxumusu (2005). *Txanogorritxu eta otso beltzu*. Donostia. Tartalo.
- López, É. (2005). La educación emocional en la educación Infantil. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*. Honako webgune honetatik berreskuratua [2021eko, martxoaren 24an]: <https://www.redalyc.org/pdf/274/27411927009.pdf>
- Mangione, N. (2018). Para leer mejor: nuevas miradas sobre la figura del "Lobo feroz". *Boletín GEC*, (22), 101-116.
- Martin, C. (1990). *Caperucita en Manhattan*. Madrid: Siruela.
- Martin, C. (2013). *Poner lo invisible en relieve. Autodefensa feminista, una herramienta para la igualdad*. [Trabajo de Máster en Estudios de Género] Universidad de Almería. Honako webgune honetatik berreskuratua [2021eko martxoaren 30ean]: <http://repositorio.ual.es/bitstream/handle/10835/2666/Trabajo.pdf?sequence=1>.
- Martín, J. (2011). De Caperucita Roja a las slasher movies: reescrituras del cuento tradicional en la ficción cinematográfica norteamericana. *Extravío: revista electrónica de literatura comparada*, (6), 69-81.
- Méndez, N. (2004). Un acercamiento al cuento infantil desde la perspectiva de género. Estereotipos en el cuento infantil. *Educare*, 7, 127-140.
- Mistral, G. (2014). *Caperucita roja*. Donostia: DIEGO PUN EDICIONES.

- Monroy, M. (d.g.). Manual de autodefensa feminista para mujeres. Honako webgune honetatik berresuratua [2021eko martxoaren 30ean]: www.vitoria-gasteiz.org.
- Perrault, C. (1993). *Perraulten ipuinak*. Arre: Pamiela.
- Ramos, M. (2011). *Neu naiz azkarrena*. Donostia: Tarttalo.
- Rodari, G. (1970). *Confundiendo historias*. Pontevedra: Kalandraka.
- Romero, D. (2011). Identidad de género en personajes de ficción infantil y juvenil. Hacia una ruptura de los estereotipos. *Acciones e investigaciones sociales*, 29, 173-200.
- Ruiza, M., Fernández, T. y Tamaro, E. (2004). Biografía de Hans Christian Andersen. En *Biografías y Vidas. La enciclopedia biográfica en línea*. Honako webgune honetatik berreskuratua [2021eko otsailaren 16an]: <https://www.biografiasyvidas.com/biografia/a/andersen.htm>.
- Segura, C. (2014). Modelos desautorizadores de las mujeres en los cuentos tradicionales. *Arenal: Revista de historia de mujeres*, 21(2), 221-241.
- Serra, A. (2011). *Caperucita roja*. Madril: Nordica.
- Steyerl, H. (2010). ¿Una estética de la resistencia? La investigación artística como disciplina y conflicto. *Transversal texts. EIPC*. Honako webgune honetatik berreskuratua [2021eko otsailaren 28an]: <https://transversal.at/transversal/0311/steyerl/es>.
- Suzzi, G. (2016). Reseña de: Rubin, G. (1975). "The traffic in women: notes on the 'political economy' of sex". *Palavras. Revista de Epistemología, Metodología y Ética del Psicoanálisis*, 2, 158-163. Honako webgune honetatik berreskuratua [2021eko martxoaren 13an]: www.revistas.unlp.edu.ar/palavras.
- Tomasi, S. (2014). De Pippi a Prisca. *Revista de estudios socioeducativos: RESED*, (2), 96-111.
- Varela, N. (2005). *Feminismo para principiantes*. Bartzelona: Ediciones B.
- Vivim del cuentu (2019). *Txanogorritxo indartsua*. Amorebieta: Ibaizabal.
- Zubeldia, I. (2003). Haur Literatura: kritika eta zenbait gogoeta. *Hegats*, 33, 55-56.

YouTubeko bideoak

Barjola, N. (2018). [La Vorágine Santander]. *Nerea Barjola / Microfísica sexista del poder. Encuentros en laVora*. <https://www.youtube.com/watch?v=5tDgsOUXCSI-tik>
eskuratua 2020ko azaroaren 19an.

Eranskinak

1. eranskina: informazioa antolatzeko taula

3. taula: informazioa antolatzeko taula.

Irakurgaiak		Hitz gakoak				
		Haur Literatura	Generoa/sexua	Estereotipoak	Aurreiritziak	Feminismoa/autodefentsa
Irakurriak						
Irakurri gabeak						

Iturria: egileak eginda.

2. eranskina: banan-banakako azterketaren adibide esanguratsuenak

4. taula: ipuinen analisia.

Ipuinak	Testua	Pertsonaiak	Ilustrazioak	Paratestoak
<p>Neu naiz indartsuena – Vivim del cuento</p>	<p>Testua euskaraz denez eta euskara hizkuntza ez sexista kontsideratzen denez, esan dezakegu erabilitako hizkuntza neutroa dela.</p> <p>Azpimarragarria dena otsoa beldurtzen duen herensuge erraldoia ama dela da, eta ez aita.</p>	<p>1. Otsoa: Gutziz harroputza, egozentrikoa eta beldurtia; atsotitzak dioen bezala “txakur zaunkariak ozkarik ez” → ez da agertzen arra ala emea den.</p> <p>2. Herensugea: Erraldoia eta beldugarria, bere txikia defendatzeko edozer gauza egiteko gai dena. → <u>AMA</u>, <u>EMAKUMEA</u></p>	<p>Ilustratzaileak otso handia, beltza eta itxura beldurgarrikoa irudikatu du orrialde guztietan, azkenengoan izan ezik, herensuge amarekin topo egiten duenean, hor txikia eta beldur aurpegiarekin irudikatu du.</p>	<p>Neutroa dela esan dezakegu, kolore neutroak erabiltzen baititu, hau da, ez ditu genero zehatz bati esleitutako koloreak erabiltzen.</p>
<p>Txano Horitxo – Enrica Agostinelli, Bruno Munari</p>	<p>Euskaraz idatzita egon arren eta euskara hizkuntza sexista ez dela esan dezakegun arren, istorioaren hasieran, aurkezpeneko momentuan, etxearen garbiketa eta zaintza lanak, Txano Horitxorena, argi eta garbi amari esleitzen dizkio.</p> <p>Gainera, otsoak autotik Txano Horitxo ikusten duenean, “begi arraroekin luzaroan begiratzen dio” eta jarraian “nahi duzu nirekin oster bat egin, neska polita?” esaten dio. Gertakari honek, zoritxarrez gaur egun gure gizarteko errealitatean, maiz gertatzen den egoera bat simulatzen du, honi inolako kritikarik egin gabe.</p>	<p>3 protagonista ageri dira istorioan:</p> <p>1. Txano Horitxo: Neskatila beldurtia da, besteen laguntza behar duena bere burua babesteko. → <u>EMAKUMEA</u>.</p> <p>2. Kanarioak: Ausartak eta azkarrak dira, otsoari aurre egiteko beldurrik ez baitute. → ez da zehazten arrak edo emeak diren.</p> <p>3. Otsoa: Maltzurra eta zitala, Txano Horitxo modu kontziente batean egoera deserosoan jartzen duelako → ez da</p>	<p>Ilustrazio guztiak hori kolorez eginak daude. Bai Txanogorritxoren, bai amaren eta baita amonaren irudiak bat datoz gizarteko estereotipoekin, hau da, soinekoa, ile luzea, etab.</p> <p>Azken irudiari erreparatuz, ama eserita dagoen besaulkian egunkariak eta aldizkariak (inteligentziaren eta informazioaren seinale direnak) ageri dira baina ama ez dabil hauei kasurik egiten, beraz, irudi hori interpretatzeko bi aukera daude:</p> <p>1. Amarenak direla eta hauek irakurtzen ibili dela.</p>	<p>Neutroa dela esan dezakegu, kolore neutroak erabiltzen baititu, hau da, ez ditu genero zehatz bati esleitutako koloreak erabiltzen.</p>

		zehazten arra edo emea den, baino orain arte ikusitakoarekin esanenezake <u>GIZONA</u> izan litekeela.	2. Aipatzen ez den aitarenak direla eta bera dela etxean informatua egoten dena eta azkarra dena.	
Txano Urdintxo – Enrica Agostinelli, Bruno Munari	Euskaraz idatzita dago eta esanenezake euskara ez dela hizkuntza sexista bat, baina, familiaren aurkezpena egiterakoan, ama etxeko lanak egiten kokatzen du eta aita, berriz, itsasontzian lan egiten. Horrekin irudikatzen dena edo bakoitzari esleitzen zaion munduari dagokionez, amari etxeko errealitatea egokitzen zaio (garbiketa, zaintza), eta aitari kanpoko errealitatea (garrantzizko lana, sostengu ekonomikoa).	5 pertsonaia ageri dira istorioan: 1. Txano urdintxo: Ausarta. → <u>EMAKUMEA</u> . 2. Amona: Oso azkarra eta ausarta. → <u>EMAKUMEA</u> . 3. Otso-arraina: Tuntuna eta gaiztoa → ez da zehazten arra edo emea den. 4. Ama: Etxeko-andrea. → <u>EMAKUMEA</u> . 5. Aita: Langilea, familiaren sostengu ekonomikoa. → <u>GIZONA</u> .	Ilustrazio guztiak urdin kolorez eginak daude. Bai Txanogorritxoren, bai amaren eta baita amonaren irudiak bat datoz gizarteko estereotipoekin, hau da, soinekoa, ile luzea, etab.	Neutroa dela esan dezakegu, kolore neutroak erabiltzen baititu, hau da, ez ditu genero zehatz bati esleitutako koloreak erabiltzen.
Osaba Otso – Xosé Ballesteros	-	Liburu honetan bi protagonista nagusi ageri dira: 1. Txanogorritxo: Bihurria, gozozalea eta engainatzailea. → <u>EMAKUMEA</u> 2. Osaba otso: Herratsua eta beldurgarria. → <u>GIZONA</u>	Ilustrazioek ez dituzte gaur egungo gizartean ezarrita dauden estereotipo edo arauak betetzen. Txanogorritxoren kasuan, ez da beti bezala neska eder bat, ile luzeduna, argala eta soineko polit eta gorria daramana; txikia, apur bat lodia eta ile nahasiarekin ageri da.	Neutroa dela esan dezakegu, kolore neutroak erabiltzen baititu, hau da, ez ditu genero zehatz bati esleitutako koloreak erabiltzen.

<p>La niña de rojo – Aaron Frisch</p>	<p>Gaztelaniaz idatzita dago eta ez du hizkuntza inklusiboa erabiltzen; adibidez, liburuari hasiera emateko “acercaos, niños, que os voy a tejer un cuento” jartzen du.</p> <p>Horretaz gain, istorioan Sofiak (Txanogorritxo) amonaren etxera iristeko egiten duen bidaiak eta bide horretan zehar sentitzen duen beldurrak, egun emakumeok etxera bidea bakarrik egiten dugunean sentitzen dugun beldur hori primeran irudikatzen du.</p> <p>Gainera, bi amaiera posible aurkezten dizkigu:</p> <p>Lehenengoan egin dezakegun irakurketa, otsoak bai Sofia (Txanogorritxo) eta baita amona bahitu egin dituela, polizia bere bila doanean amonaren etxean aurkitzen ez baititu.</p> <p>Bigarrenean, berriz, egurgile batek poliziarri otsoa handik dabilela abisatzen die eta poliziak hau harrapatu eta atxilotu egiten du, Sofia (Txanogorritxo) eta amona salbatuz.</p> <p>Bigarren bukaera hau lehenengoa haurrentzako gordinegia delako eginda dago.</p>	<p>-</p>	<p>Ilustrazioek paper oso garrantzitsua dute istorio honetan. Xehetasun eta mimo handiz egindakoak dira marrazkiak, izkina txikienari ere garrantzia emanez.</p> <p>Testua soilik irakurriz gero, Txanogorritxo basoan zehar ibiltzen irudikatuko genuke, baina, irudiei esker, konturatzen gara basoa aipatzen duenean hiri handi bati egin nahi diola erreferentzia.</p> <p>Adibidez, lehenengo irudia aztertuz gero (ikus 3.eranskina), pisu ezberdinez osatutako eraikin bat ikus dezakegu. Eraikin horretan hainbat auzokide ageri dira, bakoitza berera egunerokotasuneko ekintzak eginez. Ikus dezakegunez, ageri diren emakume guztiak etxeko lanetan eta seme-alabak zaintzen adierazi ditu.</p> <p>Amaitzeko, aipatutako bi bukaeren artean ageri den irudian (ikus 3. eranskina) ikus dezakegunez, haur guztiak lehenengo bukaera hori entzun eta gero negarrez azaltzen dira. Gure ustez, horrek beti haurrei, egia jasateko gai izango ez direnaren ustetan, errealitatea ezkutatu edo apaindu egiten diegunaren adierazle da.</p>	<p>Ilustratzaileak kolore ilunak erabili ditu, Txanogorritxoren gorria izan ezik, istorioaren espiritu tristea irudikatzeko; beraz, esan dezakegu, neutroa dela ez baititu genero zehatz bati esleitutako koloreak erabiltzen.</p>
--	---	----------	---	--

...

Iturria: egileak eginda.

3. eranskina: La niña de rojo – Aaron Frisch

1. ilustrazioa: La niña de rojo.



La niña de rojo, Aaron Frisch (2013: 1-2).

2. ilustrazioa: La niña de rojo.



La niña de rojo, Aaron Frisch (2013: 27).